



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: GITARRA

2022-03-19

Nori zuzenduak?

Graduko Gitarra Interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua.

Sarrera probak 2022-2023 edo 2023-2024 ikasturteetan egin behar dituztenen izen-ematea onartuko da. Musikenek jasotako izen-emate kopuruaren arabera onarpen eskubidea gordeko du.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2022ko martxoaren 14ean** amaituko da.

Jardunaldiaren helburua

Gitarra interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

SOCÍAS, Marco

10:00 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

11:00-11:45 Marco Socías espezialitateko irakaslearen solasaldia irakasgai nagusiaren edukiei eta garapenari buruz, eta kontzertu laburra aurkezpen gisa.

12:00-13:30 Espezialitate irakasleak hala nahi duten ikasle aktiboekin eskolak.

13:30-15:00 Atsedendaldia

15:00-18:00 Espezialitate irakasleak hala nahi duten ikasle aktiboekin eskolak

18:00-19:00 Musikeneko gitarra ikasleei eskolak eta horien entzunaldi laburra

19:00 Jardunaldiaren amaiera

Gitarra jardunaldiari buruzko informazio gehiago jasotzeko jarri harremanetan Marta Moll Hari Departamentuko buruarekin:
mmoll@musikene.eus